

EUSKAL AE-K BPG-AREN % 6,1 BIDERATU ZUEN OSASUN-ARLORA 1999AN

Osasun-gastuaren hiru laurden ekarpen publikoak jarri ditu

Euskal AEk 2.215 milioi euro erabili zituen 1999. urtean, pertsonen osasunari lotutako ondasun eta zerbitzuetarako. Kopuru horrek Barne Produktu Gordinaren % 6,1 hartu zuen urte horretan. Gastu horrek ia % 12ko hazkundera ekarri du, 1997ko ekitaldiaren aldean.

Euskal AEko 1999rako Osasunaren Kontuaren emaitza batzuk dira horiek. Osasunaren Kontua bigarren aldiz egin du EUSTATEk, ELGEren System of Health Accounts-SHA metodologiarekin.

BPGrekiko ehunekotan, hala ere, % 6,4tik % 6,1era jaitsi da gastua aipatutako aldiari, eta hori 1997 eta 1999 bitartean ekonomiaren hazkunde handia (%18) osasun-gastuarena baino askoz handiagoa izan delako. Horrek azaltzen du jaitsiera hori.

1. taula: OSASUNAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA. (milioi euro)

FUNTZIOA	1997	1999	1999/97
HC.1 Sendatzeko osasun-laguntza	1.247.682	1.267.482	1,6
HC.2 Birgaitzeko osasun-laguntza	34.562	37.645	8,9
HC.3 Egonaldi ertain eta luzeko osasun-laguntza	38.369	41.404	7,9
HC.4 Osasun-zerbitzu osagarriak	107.205	167.543	56,3
HC.1 - HC.4 Osasun-zerbitzu indibidualak	1.427.818	1.514.074	6,0
HC.5 Kanpoko pazienteei emandako osasun-produktuak	417.717	507.595	21,5
GUZTIZKO OSASUN-GASTU INDIBIDUALA	1.845.535	2.021.669	9,5
HC.6 Prebentzio eta osasun publikoko zerbitzuak	39.016	43.212	10,8
HC.7 Osasun-administrazioa eta -aseguramendua	49.589	75.885	53,0
Sailkatu gabea	7.183	12.020	67,3
OSASUNEKO UNEKO GASTUA GUZTIRA	1.941.323	2.152.786	10,9
HC.R.1 Kapital-eraketa gordina	39.967	61.962	55,0
OSASUN-GASTUA GUZTIRA	1.981.290	2.214.748	11,8
Biztanleko gastua (eurotan)	942	1.053	11,8
Osasuneko gastua BPGrekiko ehuneko gisa	6,4	6,1	-


Iturria: EUSTAT

Finantzaketari dagokionez, osasun-gastuaren zatirik handiena, **%76, erakunde publikoen** kontura izan zen. Horien artean aipagarrienak honako hauek dira: OSAKIDETZA erakunde publikoa, % 51 jarri baitzuen, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, uneko gastuen % 21 finantzatu baitzuen.

Finantzaketa pribatuak uneko gastuen % 24 ordaindu zuen, eta horretatik, % 17 etxeguneen finantzaketa zuzena izan zen.

Funtziokako uneko osasun-gastuen banaketan, zatirik handiena osasun-laguntza sendagarriari dagokio oraindik ere. Laguntza horrek ia osorik jasotzen du ospitaleetako eta ospitaleez kanpoko laguntza, guztizkoaren % 59. Hala ere, 1997an zuen pisuaren aldean, ehuneko bost puntu jaitsi da, hazkundera neurritsua (% +1,6) izan baita bi urteetan. Gastuaren ehunekotan, bigarren tokian, kanpoko pazienteei emandako osasun-produktuak daude, eta horiek barne hartzen dituzte farmazia-produktuak eta protesiak. Atal horrek izan du hazkundera erlatiborik handiena (% +21,5), eta uneko gastuaren % 24 izatera pasa da, 1997an baino bi puntu gehiago, hain zuzen ere.

1. grafikoa. OSASUN-GASTUAREN BANAKETA HORNITZAILEKA



Iturria: EUSTAT

Osasun-gastuaren zatirik handiena ospitaleetan izan zen, % 47. Osasun-laguntza anbulatorioko hornitzaileak –osasun zentroak, mediku- eta dentista-kontsultak, besteak beste- izan ziren bigarren garrantzitsuenak, % 25ekin; hirugarren tokian, azkenik, osasun-produktuen saltzaileak daude, batez ere farmaziak, gastuaren %22rekin.

Biztanleko gastua, Eros Ahalmenaren Parekotasunaren (EAP) unitatetan neurtua, 1.342koa izan zen. Horrek hainbat herrialderen gainetik jartzen du gure erkidegoa – hala nola Portugal (1.203), Grezia (1.198) eta Espainia (1.194)–, baina beste herrialde batzuetako balioetatik oso urrun –Suitza (2.853) edo Alemania (2.361)–.

Bestalde, erakunde publikoen eta pribatuen arteko gastu-banaketa erlatiboari dagokionez, Euskal AEko osasungintza bat dator ELGEko gainerako herrialdeetan gertatzen denarekin. Izan ere, herrialde horietan, batez beste, gastu publikoak % 74 hartu zuen; Euskal AE, berriz, % 76.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tlf:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es